



## MAILEGU-ARAUAK

### MAILEGU ZERBITZUA ERABILI AHAL IZATEKO:

- Inprimakia bete behar da (14 urtetik beherakoen kasuan, guraso edo tutoreek sinatuko dute).
- Liburutegiko bazkide-txartela egitea doakoa da, baina galtzen bada 3,50€ ordaindu behar da berria egiteko.
- Helbidea edo telefonoa aldatuz gero, liburuzainari jakinaraziko zaio.
- Bazkide-txartela Euskadiko Irakurketa Publikoko Sare osoan erabili daiteke, mailegu zerbitzua erabiltzeko batez ere.

### MAILEGATU DAITEKEEN DOKUMENTU KOPURUA:

- Zure liburutegian: 3 liburu (21 egunen barruan itzultzeko), 3 ikus-entzunezko (7 egunen barruan itzultzeko) eta hainbat aldizkari.
- Sareko beste liburutegietan mailegatu daiteke.

### BUZOIA:

- Liburuegiaren ordutegitik kanpo itzulketak egiteko izango da.

### EPE-LUZATZEA:

- Dokumentuen epea behin luza daiteke, liburutegian bertan, telefonoz, edo Internet bidez (erreserba duten dokumentuak eta epez kanpo daudenak izan ezik).

### ERRESERBAK:

- Liburutegian edo Internet bidez egin daitezke. Gehienez bi erreserba egingo dira. Dokumentuak jasotzeko epea bi egunekoa da.

### MAILEGU-ESKAERAK:

- Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko beste liburutegi batzuetara gehienez bi mailegu-eskaera egin daitezke.

### ISUNAK:

- Atzerapen-egun bakoitzeko eta dokumentu bakoitzeko, egun bateko etenaldia izango da sare osoan.

### DOKUMENTUAK GALDU EDO PUSKATZEA:

- Dokumenturen bat galdu edo puskatzen bada, berria ekarri behar da.

### IZEN EMATEN DUENAK HITZ EMATEN DU MATERIA-LA ZAINDUKO DUELA ETA ARAU HAUEK ONARTZEN DITUELA.

## ARAUDI OROKORRA

### Liburutegia guztiona da, horregatik:

- Bertako dokumentuak, instalazioak eta zerbitzuak zaindu.
- Errespetuz jokatu beste erabiltzaileekin eta liburutegiko langileekin.
- Isilik egon, giro atsegin eta lasaia lortzeko.
- Telefono mugikorra "MUTU" jarri.
- Higieneagatik ezin da jan.

## LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK

- Informazioa: kartel eta katalogoen bidez edota liburuzainei galdetuta.
- Dokumentazio guztiaren kontsulta.
- Liburu, musika, zinema, dokumentalen eta abarren maileguak.
- Erreserbak.
- Liburutegien arteko maileguak.
- Liburutegi elektronikoa: Interneta, Wifia, ofimatika, multimedia (zerbitzu hori 10-14 urte bitarteko adingabeek guraso edo tutoreen baimena beharko dute).
- Jarduerak: solasaldi literarioak, ipuin kontaketak, bisita gidatuak, irakurketa-proposamenak...
- Buzoia, dokumentuak itzultzeko.
- Hemeroteka: egunkariak eta aldizkariak.
- Ikas gela Sanz Eneako sotoan.